

Irura Zero Zabor Taldeak Irurako herriari 2013ko udaberrian

Hurbiltzen ari da Iruran zabor bilketaren sistema aldaketa. Udara baino lehen, gaikako bilketan pauso bat gehiago emango dugu iruratarrok: orain arte kristala, plastikoa, papera, pilak, olio eta jantziak berezita biltzen aritu gara azken urteetan, eta orain organikoa ere banatzen hasiko gara. Horretarako, talde-konposta (dagoeneko Irurako 50 familiek egin duten aukera) eta atez ateko bilketa-sistema erabiliko dira, oraingoz, emaitzarik onenak ematen ari diren sistemak. Sistema horiekin, sortzen ditugun hondakinen %80 baino gehiago birziklatuko dugu eta birziklatu ezin den zabor kopurua, errefusa, %20 baino gutxiago izango da (Usurbil, Hernani, Oiartzun edo Antzuolako datuen arabera); bosgarren edukiontzi edo kontainerraren sistemarekin, zaborraren %75 sailkatu gabe botatzen jarraitzen du jendeak, eta, ondorioz, ezin da birziklatu (Aretxabaleta, 2012ko datuak).

Azken asteetan, basura-poltsak azaldu dira Irurako hainbat etxeetan protesta modura. Protesta ekintza horrek arduratu egiten gaitu. Guztiz errespetagarria iruditzen zaigu, baina ez gaude ados beronekin. Edozein aldaketa-prozesuk zalantzak sortzea logikoa iruditzen zaigu, eta jendeak bere iritzia eta desadostasuna adieraztea positiboa. Baina gu aldaketa hau frogatzearen aldekoak gara, sistema berriari aukera bat ematearen aldekoak. Gure ustez, Gipuzkoan gai honi buruzko eztabaida pizten eta puzten aritu direnak zenbait gezur zabaltzen aritu dira azken hilabete eta urteetan. Izan ere, auzo-konposta eta atez ateko bilketa-sistema ez dira beste sistema batzuk baino zikinagoak; ez dute usainik zabaltzen (kutzak ordu gutxi batzuk bakarrik egoten dira zintzilik); ez dira garestiagoak (herriak hondakin gutxiago sortzen du eta ondorioz gutxiago ordaindu behar du zabortegietan); ez dira itsusiagoak (ikusitako argazkiak: Iruran denontzako berdinak diren kubo batzuetan aterako dira hondakinak, ez basura-poltsetan!); ez dira deserosoagoak (bosgarren edukiontzi edo kontainerrarekin berdin berdin banatu behar da organikoa); etab. Lehen aipatutako Gipuzkoako lau herri horietan urte batzuk badaramatzate atez ateko bilketa-sistemarekin eta ez da arazo berezirik gertatu.



Zenbaiten ustez, arazo nagusietako da sistema berriak inposatu egin direla. Gure ustez ere aproposagoa litzateke adostasun maila handiagoarekin ezartzea aldaketa. Baina oposizioak zuen Hondakinen Plana ere ez zen herriarekin kontsultatu, eta Iruratik 20 kilometrotara (Zubietan) makro-errauskailu bat jartzea aurreikusten zuen legealdi honetan bertan. Ez da kontsentsuak lantzeko denborarik egon beraz, ez eta horretarako borondaterik ere oposizioaren aldetik.

Gure ustez, jokoan dagoena Irurako eta Gipuzkoako ingurumena eta herritarren osasuna da. Talde ekologista nagusiak (Ekologistak Martxan, Greenpeace, Eguzki) talde-konposta eta atez ateko bilketa-sistemaren alde agertu dira. Horregatik, Irurako Udala zoriondu nahi dugu ausarta izan delako, eta gaur egungo eta etorkizuneko iruratarren eta gipuzkoarren osasuna eta bizitzakalitatea lehenetsi dituelako. Gure babesa adierazi nahi dugu aipatutako zabor bilketarako sistema berriekiko, norabide egokian emandako pauso bat dela iruditzen baitzaigu. Orain daukagu aukera Ekologia eta Garapen Iraunkorra bezalako hitzak praktikan jartzeko! Guretzako ere ohitura aldaketa suposatuko du honek, baina onerako, gure gizarte eta naturaren eta gure oinordekoen onerako. Esfortzuak merezi du!"